



Euskaraldia 2020: bideo **LEHIAKETA**

Oinarriak

Sarrera

Aurten Euskaraldiaren bigarren edizioa egingo da Euskal Herria osoan eta Informatika Fakultatean euskara informatikara eta informatika euskarara gehiago gerturatzeko saiaturako gara. Horretarako bi gaiak, Euskara eta Informatika, lotzen dituen bideo motzak egiteko eta gure bideo lehiaketan aurkezteko proposamena luzatu nahi dizugu.

Zer lan aurkez daitezke?

Euskara eta Informatika lotzen dituzten bideoak aurkez daitezke:

- Informatikako gai bat, kontzeptu bat, algoritmo bat... euskaraz azaltzen duen bideo bat
- Informatikako ikasketekin, unibertsitateko bizitzarekin, Covid-19k unibertsitateko ekarri digunarekin lotuta dagoen egoeraren bat jasotzen duen bideo bat
- Animazioak erabilia, komikiak erabilia, antzerkia erabilia ... Umorea erabilia, kritika erabilia... kantatzen, dantzan, bertsotan... Teknologia edo ikus-entzunezko teknika desberdinak erabilia...
- Eta talde bakoitzari burura etortzen zaiona, beti ere euskararekin eta informatikarekin lotura badu.

Bideoaren iraupena askoz jota 3 minutukoa izango da. Hori baino luzeagoak onartuko dira, beti ondo justifikatuta eta beti ere epaimahaiak onartzen badu, bideoa aurkeztu aurretik.

Aurkeztutako bideoetan euskara izan behar da erabilitako hizkuntza nagusia.

Bideoek jatorrizkoak izan behar dute, argitaratu gabeak eta beste saririk jaso gabeak.

Nork har dezake parte?

Lan indibidualak eta talde-lanak onartuko dira, baina bigarren aukera hori positiboki baloratuko da, hau da, lana taldean egin izatea, bai kamaren aurrean, bai atzean ere. Zenbat eta lagun gehiago agertu bideoan, orduan eta hobeto. Parte-hartzaile guztiek **UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko kideak** (ikasleak, irakasleak, ikerlariak, administrazio-langileak) izan behar dute, BAINA taldearen **bi herenek gutxienez IKASLEAK** izan behar dute eta taldearen **bi herenek gutxienez Donostiako Informatika Fakultateko kideak** izan behar dute.

Sariak

Lehiaketak ondoko 2 sariak ditu:

Epaimahaiaren saria: 150€ (Amazon bonua) + 50€ (Pako's bonua)

Publikoaren saria: 150€ (Amazon bonua) + 50€ (Pako's bonua)

Epaimahaiak utz dezake bere saria eman gabe.

Zer aurkeztu, non eta noiz?

Egindako bideoa aurkeztu ahal izateko posta elektronikoko mezu bat bidali beharko da infoeblehia@gmail.com helbidera.

Bideoarekin batera, bertan azaltzen dena laburki deskribatzen duen dokumentu bat (PDF formatuan) aurkeztu beharko da. Bertan egile eta parte-hartzaile guztien identifikazioa azaldu beharko da, Gipuzkoako campuseko zein ikastegitako kide diren, bakoitza zein kolektibotakoa den (ikasle, irakasle, ikerlari edo administrazio-langile) eta harremanetarako pertsonaren posta elektronikoko helbidea eta telefonoa adieraziz.

Lana egoki baloratu ahal izateko, bideoa egiteko erabili diren teknologiak edota ikus-entzunezko teknikak zerrendatzea ere baliagarria izango da.

Dokumentazioarekin batera egile bakoitzaren unibertsitateko txartelaren fotokopia eskaneatua (argazkia) gehitu beharko da.

Aurkezteko epea

2020ko azaroaren 1etik 15era arte.

Lehiaketaren ebazpena

Esan bezala, 2 sari egongo dira, bat dokumentu honetan ezarritako irizpideen arabera epaimahaiak erabakita eta bestea *Instagramen*, jasotako bideo guztien artean, egindako bozketa publiko baten bitartez.

Euskararen Nazioarteko Egunaren inguruan aurkeztutako bideoen erakusketa (edo aurkezpena) egingo da, eta horren amaieran lehiaketaren sari-banaketari ekingo zaio. Hori guztia beti ere, Covid-19ren pandemia dela-eta dagoen egoera kontuan hartuta.

Balorazio-irizpideak

Epaimahaiko kideek baloratuko dituzte lanak, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Euskararekin eta Informatikarekin duen lotura
- *Euskaraldiarekin* duen lotura, horren helburuekin duen lotura
- Berrikuntza, originaltasuna...
- Gaia aurkezteko alde ludikoa, dibertigarria, umoretsua... (besteekiko errespetua galdu gabe, noski)
- Taldean egindako lana izatea. Batez ere kameraren aurrean inplikaturako lagun kopurua
- Hizkuntzen trataera, bereziki euskararena, zuzentasunaren edota aberastasunaren aldetik. Bestalde, euskaraz egiteko zailtasunak edukita, egindako ahalegina ere kontuan hartuko da
- Egindako lanaren bolumena eta zailtasuna
- Erabilitako teknologiak edota ikus-entzunezko teknikak
- Software librea erabiltzea edota *Creative Commons* lizentziarekin egindako lana uztea

Epaimahaia lan baten egileak elkarrizketa batera deitu ahal izango ditu lana behar bezala ebaluatu ahal izateko, edozein zalantza argitu ahal izateko...

Epaimahaia

Epaimahaia fakultateko Euskara Batzordeko kideek osatuko dute.

<https://www.ehu.eus/eu/web/informatika-fakultatea/batzordeak>

Oharrak

Lehiaketa honetan parte hartzeak zera esan nahi du, parte-hartzaileak ziurtatzen duela bere lanaren egilea dela eta aldi berean antolakuntzak baimena duela hautatutako lanak erabiltzeko, beti ere egileen izenak adierazita eta beraiei aurretik jakinarazita, lehiaketa bera ezagutaraztearren edo *Euskaraldia* ekimenaren helburu berberak unibertsitatean bertan lortzearren.

Parte-hartzaileek berek bermatu beharko dute aurkeztutako lanetan ez dela urratzen beste inoren irudi-, jabetza- edo egile-eskubiderik.

Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar aipatutako oinarri guztiak onartzen direla.

Informatika Fakultateko Euskara Batzordea